

Gangster nipondarrak Kontxan



Takeshi Kitanok Harry Zikinaren tankerako polizia sortu zuen bere lehen filmerako.

Lehen kolpean exotismoa iradoki dezake aurtengo Donostiako Zinemaldirako prestatu duten zinema beltz japoniarrari buruzko atzera begirakoak: genero horretako 43 film ikusteko parada izango da Japonia Beltzean sailaren barruan, horietatik asko, behin ere Euskal Herrian proiektatu gabeak.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Zinemaldia

“JAPONIAKO KULTURA” gai hartuta goazen *brain-storming* bat egitera: manga, arte martzialak, karaokea, marrazki bizidunak, sushia, Haruki Murakami... Ziur ezin duzula hobeto egin? Beharbada erreferente klasikoago batekin has zaitezke, topikoetatik urruntzeko. Zer moduz Akira Kurosawa? Bai. Kurosawa beti da abiapuntu ona.

Japonia Beltzean-en egitarauari gainbegiratu bat botata bere izena ezaguna egingo zaizu. Kurosawak 1949an zuzendutako *Nora inu* (ingelesez *Stray dog*) eta 1963ko *Tengoku to jigoku* (*High and low*) pasako dituzte Donostiako aretoetan. Aurrenekoan Tokioko zuzendariak II. Mundu Gerraren ondorengo Japoniaren erretratu grisa atera zuen: janariaren errazionamendua, herritarren pobrezia, AEBen eragin zapaltzailea... *Tengoku to jigoku* filmean berriz, enpresari baten dilema aurkeztuko zaigu: erabaki bat hartu beharko du, konpainia handi bateko akziodun nagusi izan, ala horretarako prestatuta zeukan dirua bahitutako ume bat salbatzeko erabili.

Kurosawaren bi lan horiek Japoniako zinema beltzaren erreferentzia garrantzitsuak izan arren, saileko filmen karta ikusita ez gara lehen platerarekin aseko. Egia da, Mendebal-

deko zinema zale arruntentzat ezezagunak diren zuzendari asko daude menuan; beharbada ez duzu Masahiro Shinoda, Seijun Suzuki eta Shohei Imamuraen aditzerik izango, baina 1950etik 1970era bitartean zuzendari hauen lanek –beste askoren artean– genero beltza Japoniako errealitatera egokitzen asmatu zuten.

Askoren arazoa izan da: ez da erraza AEBetako gangsterren film eta liburuak norbere herrira ekartzen asmatzea. Badirudi tiroketak, kea, edari gogorak eta polizien intrigak ez direla Los Angelesetik kanpo hain erraz kabitzen. Sinesgarritasuna arazo bihurtzen da. Zuzendaria, gidoia eskuan, “hau ezin da egin” pentsatzen hasiko da. Baina orduan beti aurkituko du lapurreta bat, polizia ustel bat, kontrakoaz konbentzituko duena. Auziaren iltzea tokian tokiko osagaiak tamainan botatzea da.

Japoniako zuzendarien errezeta, adibidez, *Yakuza* generoan zerbitzatu zen. Duela berrogei urte sortutako film mota horrek gangsterrak erdi-samurai bihurtu zituen; istorio askotan sentimendu pertsonalen eta eginbeharraren arteko kontraesana islatu zen; eta gizarte garaikidearen arazoak landu zituzten

Japonia Beltzean

erdiko kalerara

zuzendariek. Toei estudiotik atera ziren intriga japoniarraren aurreneko jaki mamitsuak.

Testuinguruak lagundu zuen, noski. Esan liteke filmok krimen baten lekukoaren gisara, momentu egokian behar zuten lekuan azaldu zirela. “Japoniaren Mirari Ekonomikoa” deitu izan zaion prozesua su eta ke ari zen herrialdea industrializatzen. Hiriak hazten ari ziren, japoniar kultura AEBetakoaren eragina jasotzen... Gizarte berri horren kontraesanak plazaratu zituzten zinegileek.

Saileko filmek generoak izan duen garapena erakutsiko dute: 1960ko hamarkadako urrezko aroaren ostean 1970etik aurrera aldaera interesgarriak biziko ditu sortaldeko pelikula beltzak. Gidoiak errealistagoak izaten

mendebalderetan baino askoz aktiboagoak dira. Roberto Cueto adituak –gaiaren inguruko liburua apailatzen ari da eta Donostiako zikloaren “aita” dela esan daiteke– *El Diario Vasco* egunkariari egindako adierazpenean zera esan zuen: “*Femme fatale* klasikoaren ordeztakume ekintzaileak aurkituko ditugu, pistola hartu edo borrokan ariko direnak”.

Cuetoaren arabera, genero beltzeko film japoniarretan azpimarratzeko moduko beste ezaugarri bat detektibearen irudia da. Japonian krimenak ikertzen dituen pertsona bakartia ez ei zen sinesgarriegia ikusleentzat; horregatik poliziak taldeka lan egitea da ohikoena hango lanetan.



Ezkerrean, Akira Kurosawaren *Tengoku to jigoku* filmeko eszena bat; alboan berriz, Seijun Suzukiren *Yaju no seishun* laneko momentu bat. Japoniako genero beltzaren oinarriak jarri zituzten pelikuletako bi dira eta Donostiako zikloan ikusteko aukera izango da.

hasiko dira, biolentziak metrajearen zati handiagoa hartuko du eta benetan jazotako gertaerak film askotako abiapuntu bihurtuko dira. Kon Ichikawa edo Sadao Nakajima izango dira aldaketa horren bultzatzaile nagusiak.

Nazioarteko eragina

Garapen hori ikusita ere, oraindik egongo da japoniarrak izate hutsagatik film hauetan zerbait “bitxia” baino ikusiko ez duenik. Nazioartean Japoniako zinema beltzak izan duen eragina aspaldi honetan exotismotik harago joan da ordea. Hor daude, besteak beste, Sydney Pollack-en *The Yakuza* (1975) eta Ridley Scott-en *Black Rain* (1989) filmak, sortaldeko zinemaren eragin nabarmena dutenak. Berrixagoen artean –eta bestelako generoen nahasketa handia den arren– ezin ahaztu Quentin Tarantinoren *Kill Bill* (2003). Zuzendari estatubatuarrek behin baino gehiagotan adierazi du Seijun Suzuki zuzendaria miresten duela.

Kill Bill en Uma Thurmanek jokatu zuen paperak –Beatrix Kiddo gertaria– emango digu pelikula beltz japoniarren beste ezaugarri baterako bidea; izan ere, emakumezko pertsonaiak film hauetan euren baliokide

AEBetako zineman eragina izan du Japoniako zinema beltzak. Hor daude, besteak beste, Sydney Pollack-en *The Yakuza* eta Ridley Scott-en *Black Rain*

Noski, beti daude salbuespenak. Horieta-ko bat Takeshi Kitanoren 1989ko *Sono otoko, kyōbo ni tsuki* (*Violent Cop*) filmeko protagonista da. Clint Eastwoodek antzeztu zuen Harry Zikinaren antzeko pertsonaia izan zen Kitanoren *opera primako* protagonista. Ez da kritikariek gehien txalotu dioten lana, baina egun mundu osoan ezaguna den zuzendariari bere herrialdean sona erdiesteko balio izan zion. Kitano bera izan da film beltz japoniarraren azken urteetako berritzaile nagusia, beste batzuk baztertu ezin badira ere –hala nola Takashi Ishii, Masato Harada eta Takashi Miike–.

Egile berriak dira, film berritzaileak; zuzendariek generoa berrasmartzeko gaitasuna dutela erakutsi dute eta garai bateko banaketaren mugak gaindituta –ez da zaila ziklo honetan ikusiko diren film asko Interneten aurkitzea– Japoniako zinema beltzak aurrerantzean ere gure artean zeresana emango duela dirudi, exotismotik harago ondo egindako filmak eskaintzeko gai den neurrian. ■

www.argia.com

helbidean, hilaren 18tik 27ra Zinemaldiko filmen kritikak.